

2009/04/03-Euskarazko bilaketak, edukiak eta zerbitzuak sarean bultzatzeko akordioa

## Google eta euskara bat eginda

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, EITB Taldeak, Google Interneteko Multinazionalak eta Espressive SL euskal enpresak Googlen eta euskararen inguruko akordioa adostu dute. Aurrerantzean euskarazko dokumentuen, bideoen eta soinu arxiboen kalitatezko bilaketak egin ahal izango dira. Gainera, multinazionalak eskaintzen dituen hainbat zerbitzuz, tartean gmail, euskarazko bertsioa izango dute. Geroago etorriko dira egutegia, argazkiak eta aplikazio ofimatikoak.

Datozen bi urteetan, besteak beste, gmail posta elektronikoko tresna euskaratuko dute, eta GSA (Google Search Appliance) tresna erabiliz informazioa indexatzeko proiektua jarriko dute abian. Halaber, Google Apps zerbitzuak enpresen eskura jartzen dituen beste baliabide batzuk ere euskararen esparrura gerturatuko dira.

Internet euskaraz darabilten erabiltzaileak izango dira hitzarmen honen onuradun nagusiak. Hemendik aurrera, euskarazko edukiak topatzeko kalitate handiko bilaketak ahalbidetuko ditu Googlek. Gainera, posta elektronikoa eta bulegotika aplikazioak ere euskaraz erabiliko dituzte enpresek.

Sarean gehien erabiltzen diren hizkuntzen artean euskara kokatzea da Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren helburu nagusia. Bestalde euskarazko informazioa Interneten zabaltzea eta hedatzea ahalbidetuko du akordio honek.

EITB, euskarazko eduki multimedien lehen ekoizlea den heinean, zerbitzu hauek bereganatzeko ahalegin aitzindariari batuko zaio. Edukien produkzio propioari esker, komunikazio euskarri berrietan euskarazko edukiak eta zerbitzuak sustatu eta indartuko ditu. Halaber, euskarazko edukiak zein zerbitzuak multinazional amerikarraren zenbait produktutan (Youtube, Books, Maps, Earth edo Blogger) ezartzearen alde egingo du lan.

Googlen ekarpena, berriz, euskarazko 585.000 gmail kontu izango da. Horrekin batera, Google Search Appliance teknologia erabiliz Euskarazko Bilatzaile Orokorra garatuko du. Bost milioi dokumentu indexatzeko ahalmena izango du tresna horrek, eta behar beste handitu daiteke. Bilatzaile honi esker internautek euskarazko edukiak modu bizkor eta eraginkorrean topatuko dituzte.

Googlen euskarazko tresna eta zerbitzu berriak gehitzeko plangintzan, Espressive SL euskal enpresak, multinazional amerikarrarekin batera, ezartze eta aholkularitza lanak egingo ditu.

Apirilaren 3an, goizeko 11:00etan, EITBren Bilboko egoitzako Multibox aretoan akordioaren aurkezpen ekitaldia izango da. Ekitaldiko parte-hartzaileak Patxi Baztarrika Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordea, Juan Diego EITBko Estrategia eta Interneteko zuzendaria eta Carlos Gracia Google Enterprise Iberiako zuzendari nagusia eta Miguel de Reina Espressiveko zuzendari komertziala eta Googleko zuzendari komertzial ohia izango dira.

Hitzarmen-sinatzearen harira Carlos Graciak Googlen teknologiari eta Cloud Computing teknologian duten nagusitasunari buruz berba egingo du eta Miguel de Reinak, aldiz, akordioak erabiltzaileen artean sortuko dituen aukera berriei buruz jardungo du.

Larry Pagek eta Sergey Brinek sortu zuten Google 1998an. Kaliforniako Stanforderko Unibertsitako Komunikazio Zientzietako doktoregai haiek helburu argia zuten: munduko informazioa antolatu eta era erabilgarrian eta errazean aurkeztea. Bilatzailea da gailentzen den produktua, eta Europan egiten diren bilaketen %80 Googlen bidez egiten dira. Google enpresak etengabe gaineratzen ditu zerbitzu berriak sarean. Horren adibidea argia da ostiralean Bilboko egoitzan egingo den aurkezpena.

Carlos Gracia Armendarizen hitzetan, "Googlen oso pozik gaude proiektu hau Eusko Jaurlaritzarekin eta EITBekin partekatzeagatik. Sektore publikoak biztanleei eskaintzen dizkien zerbitzuetan aurrera egiten duela erakutsi dute. Hau bezalako proiektu berritzaileen bitartez beste hizkuntzen eta kulturen garrantziaz jabetzen da Google, eta aberasten laguntzen die".

# Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren, Euskal Irrati Telebistaren eta Google eta Expressive enpresen arteko lankidetzaz

Bilbo, 09/04/03

Egun on!

Hasierako hitzak, nahitaez, esker ona adierazteko hitzak izan behar. Esker ona hona etorri zareten guztioi. Esker ona, nola ez, oso bereziki **Euskal Irrati Telebistari eta Google eta Expressive enpresetako ordezkari**ei. Euskararentzako, herritarren hizkuntza-aukera berdintasunaren garapenarentzako eta munduko hizkuntza-aniztasunarentzako oso onuragarria den notizia batek ekarri gaitu ekitaldi honetara.

Hizkuntza aniztasunaren garaia dugu. Zahartuta geratzen ari dira Babel zorionekotzat ez baizik eta zorigaiztokotzat jotzen duten diskurtso anakronikoak. Horrexegatik, "infoingeniaritza linguistikoa" edo "hizkuntzen teknologien" garaia dugu.

Denbora asko baino lehen, teknologiak izango dira, herri garatu eta ez garatuak ez ezik, hizkuntza garatu eta ez garatuak ere bereiztuko dituztenak. Garai berriko teknologia hauetaz baliatzen den neurrian bakarrik aurkituko du euskarak leku egokia beste hizkuntzen artean, hizkuntza garatuen artean.

Informazio eta Komunikazio Teknologien esparruak euskararen normalizaziorako duen garrantziaz jabetuta dago Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Horregatik bideratu ditu urtez urte gero eta diru-laguntza zabalagoak esparru honetarako, eta horregatik sustatzen ditu urtero euskarazko tresna eta aplikazio berriak. gero herritarren eskura jartzeko. Legealdi honetan 9 milioi euro inbertitu ditugu arlo honetan.

Datozen 20-25 urteetarako hizkuntza politikaren oinarriak finkatzeko helburuarekin burutu berri dugun EUSKARA 21 prozesuaren barruan, hamalau lehentasunezko ildo definitu ditu Euskararen Aholku Batzordeak. Ildo horietako batek, hamahirugarrenak, hauxe dio hitzez hitz:

"Hizkuntzaren teknologiak (informazio eta komunikazioaren teknologiak euskararen garapenerako baliatzea), sarerako euskarazko edukiak sortzea eta komunikaziorako sare birtualak era egokian baliatzea, euskararen normalkuntza eta erabilera aukeren mesedetan. Izan ere, euskarak informazio eta komunikazioaren teknologiak baliatu behar ditu, horixe baitu ezinbesteko baldintza hizkuntza guztiz garatua izatera iristeko".

Globalizazioa euskaldunontzat ez da mehatxu bat, errealitate bat baizik, erronka bat. Eta mundu berri honetan aukera gisa ulertu, onartu eta geureganatu behar ditugu Informazio eta Komunikazioaren Teknologiak. Teknologia horiek bikain

baliatzen baditugu, irabazteko asko dauka euskarak, galtzekorik ez. Eta horretan asmatzea da gure helburua.

IKTak, sarea, Internet: horiek osatzen dutena da giltzarria. Dinamika horretatik kanpora geratzen den guztia guztiz marjinala izatera deitua dago. Edo –okerrago oraindik– desagertzera kondenatua, guztia, baita hizkuntzak ere. Sarea eta hizkuntzen teknologia arnagune errealak, ez birtualak, ditu eta izango ditu euskarak.

Gaur, poz handiz aurkezten dizuegu Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien arloan, **Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, EITBk eta Google eta Expressive enpresek** lankidetzan eman dugun urrats garrantzitsua: euskarak presentzia handiagoa, etengabe handiagoa, izango du aurrerantzean Google-n. Berri pozgarria da, denok ohartzen baikara gaur egun Google-k eta Google produktuek Internet unibertsoan duten indar izugarriaz. Datu bat ematearren, azterketek esaten dutenaren arabera, Google bilatzailearen nagusitasuna %95etik gertu dago Espainian eta Frantzian. Euskara Google-en indartsu izateak, euskarak Google-ko lehen 40-70 hizkuntzen artean lekua izateak, euskara munduko hizkuntzen lehen mailan jartzea esan nahi du. Horretan ari gara, horretan goaz aurrera, eta bide horretan urrats sendoa eta erabakigarria da gaur aurkezten dugun elkarlanerako marko hau.

Euskara Google-ren hizkuntzen artean egotea benetan estrategikoa da gure hizkuntzarentzat. Horrela dago jasota Euskadi Gizarte Planean 2010 (PESI II) eta Euskadiko Agenda Digitalean. Hain zuzen ere, *Euskadi Sarean* atalean hiru helburu zehatz finkatzen dira:

- Batetik, Interneten eta bide digitaletan Euskararen eta euskal kulturaren presentzia aberatsa, dinamikoa eta etengabeari eustea, euskal kultur nortasuna babesten eta zabaltzen laguntzen duena.
- Bestetik, euskal herritarrei esperientzia digital osoa euskaraz bermatzea.
- Azkenik, Euskadik bisitariei eskaintzen dizkien erakargarriak eta turismo baliabideak ezagutaraztea.

Eskertzekoa da, beraz, Google enpresa multinazionalaren ahalegina euskara Google produktuetan integratzeko.

Helburu hori erdiesteko ezinbestekoa dugu EITBren plataforma, herri-erakunde honek dituen tresnak, edukiak, multimedia-produktuak eta sareak ezin egokiak baitira produktuak trebatzeko eta hobetzen joateko.

Orain besteona da txanda. Orain Google-ri erakutsi behar diogu, merezi duela bere ahaleginak. Erakutsi behar diogu Google produktuen kontsumitzaile ugari garela bere tresnak euskaraz erabiliko ditugunak. Honetan ere erabiltzaileak behar ditugu. Ondo dago euskara erabiltzeko aukerak aldarrikatzea eta sortzea; baina aukerak erreibindikatzeko bezain beharrezkoa edo are beharrezkoagoa da, jadanik eskura ditugun aukerak baliatzea. Zergatik? Euskarak salbatzaileak ez baizik eta hiztunak eta teknologia-erabiltzaileak/kontsumitzaileak behar dituelako.

Ez gaude geldi, ondo goaz, aurrerantz goaz argi eta garbi. Gaurkoa urrats sendoa da. Espero dut etorkizunean urrats hauek sendotuko direla eta aurrerapauso berriak emango direla.

Bi gonbite eginez bukatuko dut. Gonbite bat Google-i: jarrai dezala bide honetatik, jarraitzeko motibo ugari daukate-eta. Motibo horietako batzuk aipatuko ditut: euskaraz ulertzen eta hitz egiten dakien biztanleria etengabe handitzen ari da; derrigorrezko hezkuntzan ikasleen % 90ek euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz egiten ditu ikasketak; unibertsitatean lehen aldiz matrikulatzen direnen %45 ikasketak euskaraz egiteko matrikulatzen da; irakasleen %55ak ordenagailua erabiltzen du ikasgelan; Euskadiko internauten gehiengo zabalak euskaraz ulertzen du edo hitz egiten du; Europako erakundeak gero eta indartsuago eskatzen ari dira hizkuntza dibertsitatearen aldeko praktikak. Euskararena izan liteke European hiztun kopuruari dagokionez hain indartsua ez den -edo nagusia ez den- hizkuntza baten teknologi garapeneko praktika on edo esperientzia pilotu arrakastatsu bat.

Bigarren gonbitea herritarrei zuzentzen diet: erabili ditzatela euskaraz Google produktuak. Googlek eta herri-erakundeok egin beharrekoa egin dugu eta egiten jarraituko dugu, erabiltzeko aukera sortu: orain herritarren esku dago euskara erabiltzeko aukera hori baliatzea. Hori da bidea: ez dago beste biderik euskara indartzeko.

Eskerrik asko guztioi!

**Patxi Baztarrika (Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordea)**